


Izena: _____ Data: _____

GAZTELUAK

Gazteluak Erdi Aroan egindako eraikinak dira. Gazteluetan, jauntxoak, haien familiako kideak eta zerbitzariak bizi ziren, baina, arriskuren bat edo erasoren bat egonez gero, inguruetako herrixketako jendea ere han babesten zen. Izan ere, gazteluak xede horrekin sortu ziren: etsaien erasoei aurre egiteko asmoz.

Gazteluen atalak.

- **Babes-erretena.** Gaztelua inguratzen zuen zulo sakon bat zen, sarritan urez beteta egoten zen. Gaztelura sartu ahal izateko, lubakia gurutzatu beharra zegoen, **zubi altxagarria** zehar.
- **Harresia.** Gazteluak harresi sendoz inguraturik zeuden, babesteko. Harresian, irekidura estu batzuk zeuden, **saietera** izenekoak, eta arkulariek geziak botatzen zizkieten handik etsaiei.
- **Omenaldi-dorrea.** Gazteluko dorre nagusia zen eta hantxe bizi ziren jauntxoa eta haren familiako kideak. Hara igo ahal izateko, zurezko eskailera bat erabiltzen zen. Erasoa izanez gero, eskailera kendu egiten zuten.
- **Almenak.** Dorre nagusia baino txikiagoak ziren eta han-hemenka kokatuta zeuden harresian. Gazteluko zaindaria han babesten ziren.
- **Ziegak.** Gazteluko sotoetan egoten ziren eta presoak han egoten ziren giltzapeturik, harik eta norbaitek askatzeko dirua edo erreskatea ordaintzen zuen arte.



Izena: _____ Data: _____

1. Nortzuk bizi ziren gazteluetan?

- Jauntxoak
- Zerbitzariak
- Jauntxoak , beren familiakideak. eta zerbitzariak.

2. Zertarako joaten zen herrixketako jendea gazteluetara?

3. Nondik sartzen zen gaztelura?

- Babes erretenatik.
- Zubi altxagarritik
- Errepidetik.

4. Nortzuk erabiltzen zituzten geziak?

- Arkulariek
- Soldadu guztiek
- Jauntxoek.

5. Esan EGIA edo GEZURRA diren:

- Babes erretena urez beteta egoten zen.
- Harresian arkulariak bizi ziren.
- Omenaldi dorrean jauntxoak bizi ziren.
- Almenak dorre nagusia baino altuagoak ziren
- Ziegan zerbitzariak bizi ziren
- Gazteluak etsaietatik babesteko asmoz eraiki ziren.
- Erdi Aroan gaztelu asko egin ziren.